

Plazaola Partzuergo Turistikotik erabiltzaileei hurrengo gomendioak kontuan har ditzaten eskatzen zaie, urte osorako baliozko direnak:

- **Argia eramatea:** tunela argizatuta dago, baina beti ere linterna, kopetakoa, fokua eramatea gomendagarria da.
- **Zoruaren erdi aldetik igarotzea.**
- **Hotzerako arropa egokia eramatea:** tenperatura aldaketa handia da.
- **Kontuz eta errespetuz ibili:** abiadura moteldu, eta beti kontuan izan erabiltzaile gehiago egon daitezkeela.
- **Seinaleak eta argibideak errespetatu eta aintzat hartu:** arrazoi desberdinengatik neanuneko seinale eta ohar egon daitezke (gertakariak, lanak, eta abar). Hauek errespetatzea erregutzen da.
- **Motordun ibilgailuak guztiz debekatuta daude, baimenduak izan ezik.**

Uitziko tunela, 2.680 metroko luzerarekin, Europako Natur Bideen tunelik luzeenatzat hartzen da. Donostia eta Iruñeako hiriak lotzen zituen Plazaola trenbideko tunel hau berritzeko obra luzeen ondoren, 2011ko apirilean tunela ireki zen berriro zirkulaziorako eta, horrela, Plazaolako Natur Bidearen beste tarte bat zabaldu zen. Guztira, Plazaolako Natur Bideak, Nafarroako lurraldean egokitutako 32 kilometroetan, 18 tunel daude: 8k 100 metro baino gutxiagoko luzera dute, 9k 100 eta 200 metro tarteko luzera dute, 1ek 243 metro ditu (Bartolo Tunelak, Lekunberriko udalean), beste batik 648 metro (Leitzako tunelak) eta, azkenik, Uitziko tunela dago, 2.680 metrokoa.